

Produktzioa aurrera egiteko informatiko bat kontratatuko dugu eta berari proiektuaren diseinua eta errealizazioa erakutsiko diogu berak aplikazioa sortzeko. Guk gure ideiak eta nahiak adieraziko dizkiogu berak lana aurrera eraman dezan.

Behin aplikazioa sortuta guk probatuko dugu arazoren bat egongo balitz konpontzeko eta ondoren, lagin talde bat hartuko dugu beraietan produktuaren ikerketa egiteko eta aztertzeko. Gurasoei banatuko dizkiegu galdetegi sorta bat produktua ebaluatzeko onurak eta desabantailen azterketa egiteko.

Ikerketaren emaitzaren arabera merkaturatuko dugu, emaitzak txarrak izanez gero aldatzeko denbora edukiko dugu.